

atxo gaxoa




SOPHÉNAREN
IPUIAK

MARGO-EDERDUN
IPUIAK

C. BUSQUETS

Nerea Muga
606445702



Urte asko ezjala, Euzkal-erriko erritxo baten
Santa eritxon neska zaar bat bizi zan.
Eztakit nuntarra bera.
Kaxa bi diruz beteta eukazan.
Gure amama askok ezagutu be egingo eben.



Atsozarr aberatzak ez eukan zeregiñik.
Katu baton lepoa igurtziten
emoten ebazan orduak.
Gure amamak be eukiko ebezan katuaketzear.
Baña arekaz jolasteko ez eben asti asko izango.



Gure Santa ori etxe aundi eder baten bizi zan.
Amar morroi ta lau mirabe
eukazan bakarrik, bere naiak betetako.
Atsoak «ara zu, ta bestera zu» esaten eutzenean
an ebizan burua galdu bearrean.



Prantzitar sukalkin bikain
bat be ba eukan.
Zer nai, axe gertatzen eutsan.
Jan ete-ebazan iñoiz indiarrak?
Ez, orixe gertatzen ez ekian ba.
Gure amamak beste
asko ez eben ja kingo.
Baña indiarrak urdiagaz ipinten bai.

Santa orrek, udan zugaitz
baten gerizpean baskaltzen eban.
Neguan etxe barruan, epeletan.





Jan da gero, eberdi-oztekoa
egiteko oe ederra eukan
eta astia be ugari.
Gure amamak ordu erdian jar-lekuan
lo-kuku bat egiteko astia be
askotan ez eben izango.



Kalera urteten eban baktxean
jantziak aldatzen ebazan:
gaur olakoak eta biar alakoak,
arek izaten ebazan buruko miñak;
jantziak aukeratzen.
Gure amamak ez eben izango olako ardurarik.

Ortik zear ibiltzeko lau kotxe ebazan,
bata baño bestea obeagoa.
Gure amamak ara edo ona joiazanean
euren astotxoak izaten eben lagun.



Gure atsotxoia ibilli be
ez zan egiten edonundik.
Inguruko erri guztiak
ondo ezagutzen ebazan.



Santa'ren arrokeria ez zan makala.
Eleizako ateetan egozan txiroai
beti eroaten eutsen poltzatxo bete diru.
Orrela danen aurrean
ongille agertzen zan
eta bere buruagaz paketsu.



Ainbeste gauza egunez eginda,
gaberako jo-ta gelditzen zan.
Jantziak erantziten be neskameak lagundu bear.
Gero ollo-zalda bero-beroa artzen eban,
barriri indartzeko.



Apal-ostean bere otoitzak egiten zituan.
Baña belaun-aulki bigun baten gañean.
Nire ta zure amamak arri-gañean be
zenbat bidar belanikatu ete-ziran?





Otoitzak amaitu baizen laster oean zan:
egun guztiko neke ta zoritxarrak
atzedena bear eben!

Urteak joan eta urteak etorri,
il zan Santa eritxon nezka zaarra.
Gure amamak be il ziran
bearren bearrez makurtuta.

Santa'k diru asko itzi eban
bere senide artekoentzat
Onek, beste lanik barik,
nezka zaar a goratzen ziarduen.



Bakean egon daitela.
Eta Zeruak, bera lez,
beartsu ta langille on egin gaizala.



© Editorial Ramón Sopena, S. A.
Depósito Legal: B. 36.294 - 1969
Gráficas Ramón Sopena, S. A.
Provenza, 93 - Barcelona - 1969 (11.986)
Impreso en España - Printed in Spain

SORTA ONETAKO IPUIAK

Lapurren Azken Txarra

Tximu dantzariak

Bi konejutxoak

Atxo gaxoa

Simon lelo

Ästo-narru

Amatxo



Nekanen gora-berak

Iturriko maitagarria

Mitxitxu ta Mitxita

Katu Borrokalaria